

LEHEN HEZKUNTZARAKO MATEMATIKA IRAKASGAIAREN EBALUAZIO- IRIZPIDEAK

1. Ea ikerketen eta problemen soluzioak bilatzeko matematikako zereginak berezkoak dituen norberaren jarrera egokiak garatzen eta lantzen dituen.
2. Ea eguneroko bizitzako zenbakizko testuak (zenbaki arruntak, zenbaki osoak, zatikienak, hamartarrenak eta erromatarrenak) interpretatzen eta balioesten dituen, arrazoiketa egokiak erabiliz eta esanahia interpretatuz, informazioa trukatzeko.
3. Ea eragiketak eta buruzko kalkulu zehatzak eta hurbilduak egiten dituen zenbaki arruntekin eta hamartarrekin, zenbait prozedura eta buru-estrategiak (kalkulu automatikoak, buruzko kalkuluko estrategiak, haztatzea, iritzira kalkulatzeko) erabiliz, problemak ebazteko egoeretan.
4. Ea eragiketak eta kalkulu zehatzak egiten dituen zenbaki arruntekin eta hamartarrekin, batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketaren algoritmoak erabiliz zenbait zenbaki motarekin, problemak ebazteko testuinguruetan eta eguneroko bizitzako egoeretan.
5. Ea erabiltzen dituen zenbaki hamartarrak, zatikiak eta ehuneko errazak eguneroko bizitzako testuinguruetan informazioa interpretatzeko eta trukatzeko, eta haien baliokidetasunak erabiltzen dituen kalkulu errazak egiteko, zuzeneko proportzionaltasunari ekiteko eta problemak ebazteko.
6. Ea eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatu, tresnekin neurtu eta neurri-unitate erabilienekin eragiketak egiten dituen, aurrez iritzirako kalkuluak eginez eta luzera-, azalera-, pisu- edo masa-, edukiera-, denbora-, angelu- neurriak eta diru-sistemako neurriak zehaztasunez adieraziz, benetako testuinguruetan eta problemak ebazteko testuinguruetan.
7. Ea espazioko orientazioarekin lotutako eguneroko bizitzako egoerak deskribatzen eta ulertzen dituen, geometriako oinarrizko nozioak erabiliz (kokapena, higidura, paralelotasuna, elkarzutasuna eta simetria).
8. Ea erreferentzia-sistemak eta ohiko objektuak edo egoerak oinarri hartuta espazioko adierazpenak interpretatzen eta egiten dituen (koordinatu-ardatzak, planoak, ibilbideen krokisak, maketak...).
9. Ea irudi lauen (triangeluak eta laukiak) eta gorputz geometrikoen (poliedroak, prismak, piramideak, konoa, zilindroa eta esfera) elementuak eta oinarrizko propietateak bereizten, erreproduzitzen eta deskribatzen dituen, eta zenbait irizpideren arabera (aldeak, angeluak, aurpegiak, erregulartasunak) sailkatzen dituen, propietateak erabiliz perimetroa eta azalera kalkulatzeko, problemak ebazteko eta eguneroko bizitzako gertaerak ulertzeko zein erabilgarriak diren balioesteko.
10. Ea informazio kuantifikagarria biltzen eta erregistratzen duen, taulak, barra-diagramak, piktogramak... erabiliz, eta informazioak interpretatzen, jakinarazten eta

balioesten dituen, inguruneko datu-taulak eta -grafikoak oinarri hartuta, problemak ebazteko testuinguruan.

11. Ea esperientzian oinarritutako iritzirako kalkuluak egiten dituen zorizko jokoetan eta zoria ageri den egoera sinpleen emaitzetan (posiblea, ezinezkoa, ziurra, aukera gehiago edo gutxiago), eta emaitza aztertzen duen.

12. Ea matematikako zenbait eduki erabiliz ebatz daitezkeen eguneroko bizitzako problemak identifikatzen eta planteatzen dituen.

13. Ea zenbaki arrunten, hamartarren, ehunekoaren eta oinarritzko zatikien eguneroko bizitzako problema errazak formulatzen eta ebazten dituen, matematikako ezagutza eta prozedura egokienak erabiliz, eta problemak ebazteko zer prozesuri jarraitu zaion ordenan eta argi adierazten duen, ahoz eta idatziz.

14. Ea problema irekiak, ikerketa matematikoak eta zenbakiei, kalkuluei, neurriei, geometriari eta informazioaren tratamenduari buruzko lanen proiektuak formulatzen eta ebazten dituen, zenbait estrategia erabiliz, talde-lanean aktiboki jardunez, eta ebazpen-prozesua eta ondorioak ahoz nahiz idatziz komunikatzen dituen.

15. Ea arrazoiketa-prozesuak eta problemak ebazteko estrategiak erabiltzen dituen, lan zientifikoko metodoaren faseak erabiliz eta kontrolatuz bere mailara egokitutako egoeretan (galderak, ebazpenen planteamendua eta saiakera, kalkuluak, soluzioak egiaztatzea eta jakinaraztea).

1.MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea irakurtzen, idazten, alderatzen eta ordenatzen dituen 9ra arteko eta 19ra arteko zenbaki kardinalak, gorako eta beherako ordenan.
Ea elementuak zenbatzen dituen, eta ea lortutako emaitza lotzen duen dagokion zenbakiarekin.
Ea irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen 19ra arteko zenbakien segidak.
Ea badakien adierazten zein diren eman zaion zenbaki baten hamarrekoak eta batekoak (eta horien baliokidetasuna).
Ea deskonposatzen dituen zenbakiak hamarrekotan eta batekotan, eta batuketa gisa.
Ea egiten dituen zenbaki arrunten arteko batuketak eta kenketak, eta ea horrela, prozesuen automatizazioa finkatzen duen.
Ea problema bateko datuak aztertzen dituen, horiei buruzko gogoeta egiten duen eta dituen ezaupideak aplikatzen dituen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea irakurtzen, idazten, alderatzen eta ordenatzen dituen 79ra arteko zenbaki kardinalak, gorako eta beherako ordenan.
Ea irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen 79ra arteko zenbakien segidak.
Ea deskonposatzen dituen zenbakiak hamarrekotan eta batekotan, eta batuketa gisa.
Ea alderatzen dituen zenbakiak eta ea bereizten dituen zenbaki handiena eta zenbaki txikiena.
Ea egiten dituen zenbaki naturalen arteko kenketak, eta ea horrela, prozesuen automatizazioa finkatzen duen.
Ea badakien adierazten zein diren eman zaion zenbaki baten hamarrekoak eta batekoak (eta horien baliokidetasuna).
Ea problema bateko datuak aztertzen dituen, horiei buruzko gogoeta egiten duen eta dituen ezaupideak aplikatzen dituen.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea irakurtzen, idazten, alderatzen eta ordenatzen dituen 99ra arteko zenbaki kardinalak, gorako eta beherako ordenan.
Ea irakurtzen, idazten, alderatzen eta ordenatzen dituen hamargarrenera arteko zenbaki ordinalak.
Ea irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen 99ra arteko zenbakien segidak.
Ea alderatzen dituen 99ra arteko bi zifrako zenbakiak eta ea bereizten dituen zenbaki handiena eta zenbaki txikiena, > eta < ikurrak erabilia.
Ea ezagutzen duen batuketan eta biderketan arteko lotura.
Ea egiten dituen zenbaki arrunten arteko batuketak eta kenketak, eta ea horrela, prozesuen automatizazioa finkatzen duen.
Ea egiten dituen biderketa errazak, batugai berdineko batuketak oinarri hartuta.
Ea buruz kalkulatu dituen zenbakien arteko batuketak, irudien laguntzarekin, edo gabe.
Ea problema bateko datuak aztertzen dituen, horiei buruzko gogoeta egiten duen eta dituen ezaupideak aplikatzen dituen.
Ea irakurtzen eta adierazten dituen orduak erloju analogikoetan eta digitaletan: orduak <i>puntuak</i> eta <i>eta erdiak</i> .

2.MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA
LORPEN ADIERAZLEAK
Ea 399rainoko zenbakiak irakurtzen, idazten eta deskonposatzen dituen.
Ea 2 zifrara arteko zenbakiak alderatzen eta ordenatzen dituen.
Ea 2 zifrako zenbakiak hamarreko hurbilenera hurbiltzen dituen.
Ea zenbaki ordinalak erabiltzen dituen.
Ea 2 zifrako zenbakien batuketak egiten dituen, bururakoarekin eta bururakorik gabe.
Ea 2 zifrako zenbakien kenketak egiten dituen, bururakoarekin eta bururakorik gabe.
Ea problemak ebazten dituen, batuketen eta kenketen bidez.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea 3 zifrara arteko zenbakien batuketak eta kenketak egiten dituen.
Ea unitateen arteko baliokidetasunak aplikatzen dituen.
Ea 3 zifrako zenbakiak irakurtzen, idazten eta deskonposatzen dituen.
Ea 2aren, 5aren, 3aren eta 4aren tauletako biderketak egiten dituen.
Ea biderketak egiten dituen, bururakorik gabe.
Ea problemak ebazten dituen, batuketen, kenketen eta biderketen bidez.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea biderketak egiten dituen bururakorik gabe.
Ea banaketak egiten dituen, zatiketaren bidez.
Ea badakien diru-sistemako txanponak eta billeteak zein diren.
Ea egutegia erabili eta data jakinak aurkitzen dituen.
Ea gorputz geometrikoak sailkatu eta simetriak egiten dituen.
Ea denbora-unitateei buruzko problemak ebazten dituen.
Ea problemak ebazten dituen.

3. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA
LORPEN ADIERAZLEAK
Ea 5 zifrara arteko zenbakiak deskonposatzen dituen.
Ea 5 zifrara arteko zenbakiak alderatu eta ordenatzen dituen.
Ea zenbaki ordinalak ezagutu eta erabiltzen dituen.
Ea zenbakiak adierazitako ordenara hurbildu eta iritzirako kalkuluak egiten dituen.
Ea batuketak eta kenketak egiten dituen.
Ea biderketak egiten dituen.
Ea batuketa-, kenketa- eta biderketa-problemak ebazten dituen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea zenbaki arrunten biderketa eta zatiketa egiten duen.
Ea zenbaki arrunten biderketa iritzira egiten duen.
Ea zatikiak adierazi eta alderatzen dituen.
Ea zenbaki hamartarrak deskonposatzen dituen.
Ea zenbaki hamartarrak alderatzen dituen.
Ea batuketa-, kenketa- eta biderketa-problemak ebazten dituen.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea neurri-unitateen baliokidetasunak aplikatzen dituen.
Ea neurri-unitateak ordenatzen dituen.
Ea neurri-unitateak dituzten problemak ebazten dituen.
Ea orduak erlojuetan irakurri eta adierazten dituen.
Ea denbora-unitateak dituzten problemak ebazten dituen.

Ea badakien zer posizio duten bi zuzenek.

Ea angeluak neurtzen dituen garraiagailuz.

Ea poligonoak bereizi eta izena jartzen dien.

4. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEA
Ea idazten, irakurtzen eta deskonposatzen dituen zazpi zifrarainoko zenbakiak.
Ea hurbiltzen dituen zenbakiak adierazitako mailara eta eragiketak iritzira kalkulatzeko dituen.
Ea eragiketa konbinatuak kalkulatzeko dituen.
Ea zatiketak egiten dituen.
Ea zatiketaren funtsezko propietatea aplikatzeko dituen.
Ea problema errealek ebazten dituen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea alderatzen eta ordenatzen dituen zatikiak.
Ea zenbaki baten zatikia aurkitzen duen.
Ea erabiltzen dituen zenbaki hamartarren arteko baliokidetzak.
Ea deskonposatzen dituen zenbaki hamartarrak.
Ea hurbiltzen dituen zenbaki hamartarrak.
Ea alderatzen eta ordenatzen dituen zenbaki hamartarrak.
Ea zenbaki hamartarrekin lan egiten duen.
Ea badakien erlojuetan ordua irakurtzen eta adierazten.
Ea erabiltzen dituen unitateen arteko baliokidetzak, eta ea alderatzen eta ordenatzen dituen neurriak.
Ea ebazten dituen zatikiak eta zenbaki hamartarrak dituzten problemak.
Ea ebazten dituen denbora-neurriak dituzten problemak.
Ea ebazten dituen neurriak dituzten problemak.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea erabiltzen dituen unitateen arteko baliokidetasunak.
Ea neurriak modu bat baino gehiagotan adierazten dituen.
Ea identifikatzen eta adierazten dituen zuzenen eta zirkunferentzien kokapen erlatiboak.
Ea identifikatzen eta adierazten dituen mota bat baino gehiagoko angeluak.
Ea marrazten dituen simetriak eta translazioak.
Ea sailkatzen dituen triangeluak aldean eta angeluen arabera.
Ea marrazten dituen irudi geometrikoak.
Ea sailkatzen dituen lau-aldekoak eta paralelogramoak.
Ea ezagutzen dituen prismak eta piramideak, eta haien elementuak.
Ea ezagutzen dituen gorputz biribilak eta haien elementuak.
Ea ebazten dituen neurriei buruzko problemak.
Ea ebazten dituen geometriari buruzko problemak.

5. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea 9 zifrarainoko zenbakiak deskonposatzen dituen.
Ea 9 zifrarainoko zenbakiak alderatzen eta ordenatzen dituen.
Ea biderketak eta zatiketak egiten dituen
Ea eragiketa konbinatuak egiten dituen.
Ea eragiketak iritzira kalkulatzen dituen.
Ea zatigarritasuna menderatzen duen.
Ea zatikiak irakurtzen eta idazten dituen.
Ea zatikien arteko batuketak eta kenketak egiten dituen.
Ea gai den problemak ebazteko, zenbaki arruntak eta zatigarritasuna erabiliz.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea zatiki jakin baten zatiki baliokideak kalkulatzen dituen.
Ea zatikiak zenbaki misto gisa adierazten dituen, eta alderantziz.
Ea zenbaki hamartarrak deskonposatzen dituen.
Ea zatikiak eta zenbaki hamartarrak alderatzen eta ordenatzen dituen.
Ea eragiketak egiten dituen zenbaki hamartarrekin.
Ea ehunekoak kalkulatzen dituen.
Ea modu konplexuan adierazitako neurriak modu soilean adierazten dituen.
Ea problemak ebazten dituen zenbakiak, ehunekoak eta neurriak erabiliz.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea badakien azalera-unitateen arteko baliokidetasunak erabiltzen.
Ea badakien denbora-unitateen arteko baliokidetasunak erabiltzen.
Ea badakien sistema hirurogeitarrean kalkuluak egiten.
Ea badakien poligonoak sailkatzen.
Ea badakien laukizuzenen, laukien eta triangeluen azalera kalkulatzeko.
Ea badakien irudi konposatuaren azalera kalkulatzeko.
Ea badakien zenbait gertakariren probabilitatea kalkulatzeko.
Ea badakien azalera-neurrien problemak ebazten.
Ea badakien denbora-unitateen problemak ebazten.
Ea badakien probabilitateen eta neurrien problemak ebazten.

6. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
MATEMATIKARAKO GAITASUNA
Ea zenbakizko testuetan eta eguneroko bizitzakoetan zenbakiak (arruntak, osoak, zatikiak eta milarena arteko hamartarrak) irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen, arrazoiketa egokiak erabiliz, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzen duen.
Ea zenbaki arruntak eta hamartarrak deskonposatzen, konposatzen eta biribiltzen dituen, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzen duen.
Ea erromatar zenbakiak identifikatzen dituen eta ezagutza hori datak ulertzeko erabiltzen duen.
Ea zenbakiekin eragiketak egiten dituen, eragiketen hierarkia ezagututa.
Ea berbidurak, kuboak eta 10 berrekizuneko berreketak kalkulatzeko dituen.
Ea deskonposatzen dituen milioia baino zenbaki txikiagoak batuketa gisa eta batuketa eta biderketa gisa, zifren posizio balioei erreparatuz.
Ea landutako edukiak gainditu beharra eskatzen duten problemak ebazten dituen, estrategia heuristikoak eta arrazoiketakoak (sailkapena, erlazioak bereiztea, kontraadibideak erabiltzea) erabiliz, aieruak eginez, eraikiz, argumentatuz, erabakiak hartuz, eta haien ondorioak eta erabiltzearen egokitasuna baloratuz.
Ea zenbaki osoak, hamartarrak eta oinarriko zatikiak ordenatzen dituen, alderatuz, zenbakizko zuzenean adieraziz, eta zenbaki mota bakoitza besteetan adieraziz.
Ea zenbakizko testuetan eta eguneroko bizitzakoetan zenbakiak (arruntak, osoak, zatikiak eta milarena arteko hamartarrak) irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen, arrazoiketa egokiak erabiliz, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzen duen.
Ea landutako edukiak gainditu beharra eskatzen duten problemak ebazten dituen, estrategia heuristikoak eta arrazoiketakoak (sailkapena, erlazioak bereiztea, kontraadibideak erabiltzea) erabiliz, aieruak eginez, eraikiz, argumentatuz, erabakiak hartuz, eta haien ondorioak eta erabiltzearen egokitasuna baloratuz.
Ea multiplo komunetan txikiena eta zatitzaile komunetan handiena kalkulatzeko dituen.
Ea zenbaki osoak, hamartarrak eta oinarriko zatikiak ordenatzen dituen, alderatuz, zenbakizko zuzenean adieraziz, eta zenbaki mota bakoitza besteetan adieraziz.
Ea batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa egiteko algoritmoak erabiltzen eta automatizatzen dituen, zenbait zenbaki motarekin, emaitzak egiaztatzean, problemak ebazteko eta eguneroko bizitzako egoerak ebazteko testuinguruetan.
Ea problemak ebazteko behar diren datuak bilatzea zenbait grafikotan

Ea datu kualitatibo eta kuantitatiboak biltzen eta sailkatzen dituen inguruko egoeretatik, adierazpen grafikoak irakurriz eta interpretatuz.
Ea bi ezaugarriko lerro-grafikoak egiten, irakurtzen eta interpretatzen dituen.
Ea adierazpen grafikoak egiten, irakurtzen eta interpretatzen dituen, eta datuak biltzen eta sailkatzen dituen.
Ea lerro-grafikoak taulekin eta beste grafiko batzuekin lotzen dituen.
Ea proiektu bat egin dezakeen lerro-grafikoekin.
Ea problemak irekiak, ikerketa matematikoak eta zenbakiei, kalkuluei buruzko lanen proiektuak formulatzen eta ebazten dituen, zenbait estrategia erabiliz, talde lanean aktiboki jardunez, eta ebazpen prozesua eta ondorioak ahoz nahiz idatziz komunikatzen dituen
HIZKUNTZARAKO GAITASUNA
Ea zenbait motatako testu ez-literarioak (azalpenezkoak, narratiboak, deskribatzaileak eta argumentatzekoak) eta eguneroko bizitzakoak ulertzen dituen, nolabaiteko xehetasun mailarekin.
Ea testuen xedeaz ohartzen den.
Ea testuen antolaketa-egitura identifikatzen duen eta gaian aurrera egindakoa aztertzen duen.
EKIMENA ETA EKINTZAILE-SENA
Ea zenbakizko testuetan eta eguneroko bizitzakoetan zenbakiak (arruntak, osoak, zatikiak eta milarena arteko hamartarrak) irakurtzen, idazten eta ordenatzen dituen, arrazoiketa egokiak erabiliz, eta zifra bakoitzaren posizio-balioa interpretatzen duen.
Ea landutako edukiak gaingaitu beharra eskatzen duten problemak ebazten dituen, estrategia heuristikoa eta arrazoiketakoak (sailkapena, erlazioak bereiztea, kontraadibideak erabiltzea) erabiliz, aieruak eginez, eraikiz, argumentatuz, erabakiak hartuz, eta haien ondorioak eta erabiltzearen egokitasuna baloratuz.
IKASTEN IKASTEA
Ea problemen ebazpenean erabilitako prozesuaz hausnartzen duen: egindako eragiketak eta emaitzen unitateak berrikusiz, erantzunak testuinguruan egiaztatuz eta interpretatuz, eta ebazteko beste modu batzuk bilatuz.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
MATEMATIKARAKO GAITASUNA
Ea irakurtzen eta idazten dituen zenbaki hamartarrak.
Ea egiten dituen zenbaki hamartarren batuketak, kenketak eta biderketak.
Ea hurbiltzen dituen zenbaki hamartarrak maila jakin batera.
Ea kalkulatzten dituen iritzira zenbaki hamartarren batuketak, kenketak eta biderketak.
Ea erabiltzen dituen zenbaki hamartarrak benetako problemak ebazteko.
Ea irakurtzen eta idazten dituen zenbaki hamartarrak
Ea egiten dituen zenbaki hamartarren zatiketak.
Ea kalkulatzten dituen zatidura baten zifra hamartarrak.
Ea kalkulatzten duen zatiki baten adierazpen hamartarra.
Ea ebazten dituen egoerak, zenbaki hamartarrak erabiliz.
Ea kalkulatzten duen kantitate jakin baten ehunekoa.
Ea kalkulatzten duen zer emaitza lortzen den kantitate bati ehunekotan adierazitako igoera bat edo beherapen bat aplikatzean.
Ea erabiltzen dituen eskalak benetako problemak ebazteko.
Ea erabiltzen dituen ehunekoak eta proportzionaltasuna benetako problemak ebazteko.
Ea ebazten dituen denbora unitateak ageri diren benetako problemak.
Ea egiten dituen kantitateen batuketak eta kenketak, sistema hirurogeitarrean.
Ea ebazten dituen azalera unitateak ageri diren benetako problemak.
Ea erabiltzen dituen bolumen unitateen arteko baliokidetasunak, benetako egoerak ebazteko.
Ea aplikatzen dituen benetako egoeretan bolumen- eta edukiera unitateen arteko baliokidetasunak.
Ea ebazten dituen bolumenak eta edukierak ageri diren eguneroko bizitzako egoerak.
Ea problemak irekiak, ikerketa matematikoak eta zenbakiei, neurriei, eta informazioaren trataerari buruzko lanen proiektuak formulatzen eta ebazten dituen,zenbait estrategia erabiliz, talde lanean aktiboki jardunez, eta ebazpen prozesua eta ondorioak ahoz nahiz idatziz komunikatzen dituen.
Ea histogramak egin eta interpretatzen dituen.
HIZKUNTZARAKO GAITASUNA

Ea bereizten duen zenbait testu informatiboren egitura, eta haietatik informazioa atera.
Ea ulertzen eta gogoratzen dituen zenbait testu motatako (informatiboak, deskribatzaileak, eguneroko bizitzako mezuak...) xehetasun garrantzitsuak.
IKASTEN IKASTEA
Ea aztertzen duen problemen ebazpena, faseei zein egindako kalkuluei dagokienez
EKIMENA ETA EKINTZAILE-SENA
Ea erabiltzen dituen zenbaki hamartarrak ekimenez, eguneroko bizitzako egoerak ulertzeko eta ebazteko.
Ea ekimenez ebazten dituen neurriak ageri diren eguneroko bizitzako egoerak.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
MATEMATIKARAKO GAITASUNA
Ea erabiltzen dituen edukiera- eta bolumen-unitateen arteko baliokidetasunak benetako egoerak ebazteko.
Ea kalkulatzten dituen azalerak eta bolumenak, eta zenbait egoera ebazteko erabili.
Ea kalkulatzten dituen batez bestekoa, mediana, moda eta heina eguneroko bizitzako egoeretan.
Ea kalkulatzten duen zenbait gertaeraren probabilitatea.
Ea ebazten dituen benetako egoerak, zenbait gertaeraren neurri estatistikoak eta probabilitateak kalkulatz.
Ea problemak irekiak, ikerketa matematikoak eta zenbakiei, neurriei, geometriari eta informazioaren trataerari buruzko lanen proiektuak formulatzten eta ebazten.
HIZKUNTZARAKO GAITASUNA
Ea ulertzen eta gogoratzen dituen zenbait testu motatako (informatiboak, deskribatzaileak, eguneroko bizitzako mezuak...) xehetasun garrantzitsuak.
Ea bereizten duen zenbait testu informatiboren egitura, eta haietatik informazioa atera.
EKIMENA ETA EKINTZAILE-SENA
Ea hausnartzen duen problemen ebazpenean erabilitako prozesuei buruz, eta egindako lana berrikusi.
IKASTEN IKASTEA
Ea erabiltzen dituen estatistikako eta probabilitateko ezagutzak, benetako egoerak ebazteko.